

4.2. Gaiaren lanketa

> Ipuin berri bat sortzen



- Nola idazten da ipuin bat?

Helburuak

- Ipuinen egitura ezagutzea.
- Ipuin bat idatzi ahal izateko hainbat ideia hartzea.

Prozedura

- Lehenik eta behin, Joxek zerbait bidali diela esan.
- Joxek bere gutunean esan zien bezala, ipuinekin zerikusia daukala aipatu.
- Joxek bidalitako aurkezpena ikusi.
 - Hezitzaileak Joxek bidalitako aurkezpena poliki eta intonazio egokia erabiliz irakurri.
 - Aurkezpeneko pantaila bakoitzaren ostean, galderak egin umeei ulertu duten ikusteko.

Oharra

- Dokumentua beti eskura izatea komeni da. Horregatik, inprimatzea egokia litzateke. Hemendik aurrerako ariketa eta fitxetan ipuinaren lanketa egingo da umeei euren idazteko; egokia da kontzeptuak birpasatzeko.